

## OSASUN PUBLIKOA INDARTZEKO MOZIOA

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren eginkizuna osasungintza sistema kudeatzea eta Euskadin bizi diren pertsonen osasuna babestea da. Gaur egungo ingurumarian osasuna babesteko eta zaintzeko hainbat neurri betetzea derrigorrezkotzat jotzen dugu:

1.- Tolosako Udalak Osasun Sailari eskatzen dio berma dezala urte osoan, baita udan ere, herrialde honetako osasun-sistema publikoak eskaintzen duen asistentzia.

2.- Tolosako Udalak Osasun Sailari eskatzen dio urtero prestakuntza-eskaintza egiaztatu guztia eskaini dezala, datozen urteotan Osakidetzako profesionalen arteko belaunaldi-txandari erantzun ahal izateko.

Era berean, Osasun Sailari eskatzen dio prestakuntza amaitzean lan-kontratu bat eskaini dezala, kalitatezko enpleguaren alde egiten duen apustuaren parametroen barruan, Euskadiko osasun-arretaren sistema indartzen jarraitzeko beharrezkoak diren pertsona guztiei.

3.- Tolosako Udalak Osasun Sailari eskatzen dio Osakidetzako plantilla berritzeko, egonkortzeko eta, beharrezkoa den neurrian, handitzeko politikarekin jarrai dezala, XII. legegintzaldirako Gobernu Programako konpromisoak betetzeko, eta, zentzu horretan, Lehen Mailako Arretari dagokionez, plaza hutsen eskaintzari eutsi eta hura zabal dezala, plaza horiek bete daitezten bultzatzeko. Era berean, Lehen Mailako Arretako Estrategian (fisioterapia, farmazia komunitarioa) aurreikusitako profil profesional berriak ezartzen jarraituko du, osasunaren zaintza integrala hobetzeko apustuarekin bat etorritz.

4.- Tolosako Udalak Osasun Sailari eskatzen dio amai ditzala dagoeneko onartuta eta deituta dauden lanen deialdi publikoen prozesuak, plantillen jarraitutasuna eta egonkortasuna bermatzeko, eta, aldi berean, lanean jarrai dezala hurrengo urteko lan-eskaintza publikoak eta deialdiak onartzeko, behin-behinekotasuna murrizteko eta enplegu egonkorra eta kalitatekoa bultzatzeko konpromisoarekin bat etorritz.

5. Azkenik, Tolosako Udalak Osasun sailari eskatzen dio eskualdean titulartasun publikoko ospitale publikoa izan bitartean, Inviza-rekin egun dagoen hitzarmenaren jarraipena egin dezala, Tolosaldeako herritarrok Asuncion Klinikaren bidez osasun arreta egokia izateko: publikoa, kalitatezkoa, unibertsala eta doakoa.


Tolosan, 2022ko uztailaren 28an

EAJ-PNV



Joseba Ormazabal Lopez

PSE-PSOE



Jose Mari Villanueva Telleria